

INFORMAZIO OHARRA

NEKAZARIEK GASOLIOAGATIK JASAN BEHAR DUTEN HIDROKARBUROEN GAINEKO ZERGAREN ITZULKETA 2010. URTEAN ETA HURRENGOETAN

1.- ARAUDIA: FORU AGINDUA

Ogasun eta Finantza Sailaren 1096/2010 Foru aginduaren bidez (apirilaren 30ekoa), nekazariak, abeltzainak eta basozainak gasolioa erosteagatik jasaten dituzten Hidrokarbueroen gaineko Zergaren kuoten itzulketa partzialerako prozedura ezartzen da, 2010. urterako eta hurrengoetarako. Itzulketa urtean behin egingo da, eta eskaerak egiteko epea berdina izango da urtero.

2.- ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Eskualdeko nekazaritza bulegoetan edo Nekazaritza Zerbitzuan, MAIATZAREN 15ETIK EKAINAREN 30ERA, URTERO.

Eskaera epez kanpo aurkeztuz gero, interesdunak berak aurkeztu beharko du Foru Ogasuneko Zerga Berezien Atalean.

3.- AURKEZTU BEHARREKO FAKTURAK

Aurreko urtean nekazaritzan erabiltzeko (baratzezaintza, abeltzaintza eta basogintza barne) gasolioa erosi izanari dagozkion jatorrizko fakturak aurkeztuko dira, urtero. Eskualdeko nekazaritza bulegoetan, jatorrizko fakturak konpultsatuko dira, eta interesdunari egindako eskaeraren kopia emango zaio.

4.- ITZULKETAREN ONURADUNAK

Pertsona fisikoak edo juridikoak, itzulketaren zergaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren aitortenean nekazaritzaren etekinak aitortu dituztenak.

5.- ITZULKETARAKO ESKUBIDEA SORTZEN DUTEN KUOTAK

- “Nekazaritzako gasolioa” izenarekin ezaguna den gasolioaren erosketak. **78,71 euro itzuliko dira justifikatutako eta nekazaritzan, abeltzaintzan edo basogintzan kontsumitutako 1.000 litroko.**
- Aurreko urte naturalean egindakoak.

6.-ITZULKETARAKO ESKUBIDEA EMATEN DUTEN MAKINERIA

Hauexek dira itzulketarako eskubidea ematen duten makineriako kontsumoak:

1. Traktoreak
2. Nekazaritzako maikinak, traktoreak ez bestek
3. Motor finkoak
4. Beste batzuk

7.- SEKTOREARENTZAKO INFORMAZIOA

Foru Ogasunaren eta Nekazaritza Zerbitzuaren web orrietan informazioa jarriko da, bai eta esteka bat ere interesdunak jakinaren gainean egon daitezzen.



Nekazaritza Zerbitzuak, sektoreko elkarteen, kooperatiben eta ENBen bidez, sektoreari informazio egokia emango dio.

Foru Ogasuneko Zerga Berezien Atalaren telefonoak:

- 94.406.83.65
- 94.406.74.26
- 94.608.75.14

8.- NEKAZARITZAKO GASOLIOA ERABILI AHAL IZATEKO PROZEDURA

A) GASOLIO-HORNIDURAK GASOLINA-ZERBITZUGUNEETAN EGITEN BADIRA.

1. Foru Ogasuneko Erregistro Nagusian, dagokion identifikazio-etiketa lortu behar da.
2. Dagokion banku-entitatean, gasolioaren txekeak edo txartelak eskatu behar dira.
3. Gasolindegian, nekazaritzako gasolioa gasolioaren txeke edo txartelen bidez ordaindu behar da, inola ere ez eskudirutan edo bestelako txartelak erabilia. Bakarrik ordaindu ahal izango da eskudirutan edo bestelako txartelen bidez, hornidura ustiatégian bertan (ibilbideko banaketa) egin bada.
4. Banku-erakundeek Administrazioari transmititzen dizkiote zerbitzuguneotan ordaindutako zenbatekoak; beraz, bat etorri behar dira haiek transmititutako zenbatekoak eta aurkezten diren fakturretan jasotzen direnak. Bankuko laburpenak gorde, haiek aurkezteko eska diezazukete eta.
5. Hornitzaileak dagozkion fakturak egingo ditu, bai eta haien kopia ere beharrezkoa izanez gero.
6. Egiaztatu ea bat datozen itzulketaren onuraduna, gasolio profesionaleko txartelaren edo txekearen titularra eta fakturretan agertzen den pertsona. Izan ere, pertsona bera izan behar da hiru kasu horietan.

B) HORNITZAILEAK BERAK USTIATEGIETAKO BILTEGIETARA ERAMATEN BADU GASOLIOA.

1. Kasu honetan, merkatuan erabiltzen diren ohiko ordainketa-bideak erabiliko dira.
2. Hornitzaileak gasolioa deskargatzen amaitu duenean, emate-orriaren kopia bat utziko dizu eta sinatu egin behar duzu. Dokumentu horietan jasotzen diren litroak Administrazioari transmitituko zaizkio, eta bat etorri behar dira itzulketa eskatzeko aurkezten diren fakturretan agertzen diren litroekin.
3. Egiaztatu ea bat datozen zerga-itzulketaren onuraduna, batetik, eta gasolioaren faktura nahiz emate-orrietan agertzen den pertsona, bestetik. Izan ere, pertsona bera izan behar da hiru kasu horietan.